

Izen-abizenak:	Irakaslea:
----------------	------------

A2 mailako proba idatzia

p r o b a e r e d u a

Probaren atalak:

Irakurriaren ulermena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- Garbigailu zalapartatsua	8 galdera x puntu 1 = 8 puntu	15.5 puntu	
2.- Oporretako plan berezia proposatu dute Letonian	5 galdera x 1.5 puntu = 7.5 puntu		

Entzunaren ulermena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- Iñaki Lasari egindako elkarrizketa	10 galdera x puntu 1 = 10 puntu	15 puntu	
2.- Pitoi sugea etxeko komun zuloan	10 galdera x 0.5 puntu = 5 puntu		

idazmena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- idazlana		15 puntu	7.5 puntu

Proba idatzi osoa		45.5 puntu	27 puntu (%60)
-------------------	--	------------	----------------

Proba egiteko bi ordu eta erdi izanen dituzu.
Proba hasi eta ordu erdi beranduago entzunaren ulermena egingo dugu.

Irakurriaren ulermena**1. ariketa**

Irakur ezazu ondoko testu hau. Irakurri eta gero esan behean agertzen diren baieztapenak (esaldiak) **EGIA** ala **GEZURRA** diren

GARBIGAILU ZALAPARTATSUA

Gure etxeko garbigailua ni jaio baino lehenago erosi zuten gurasoek eta ez dabil oso ongi. Itzalita dagoenean, inor ez da garbigailuaz gogoratzen eta bakea egoten da gure etxean.

Baina martxan jartzen den bakoitzean, izugarrizko zarata egiten hasten da eta eztabaida bera sortzen da beti gurasoen artean: zarata hori jasanezina dela, berria noiz erosi behar duten, nondik atera dirua... eztabaidaren berotasunean, garbigailuak bere garbiketa bukatzen du eta, orduan, inor konturatu gabe, giroa baretu egiten da... handik bi egunera edo, garbigailua berriz lanean hasi arte.

Dena dela, argi dago: berria erosteko dirua aurrezten dutenean, zaharra bota eta isilago lan egiten duen beste bat ekarriko dute.

Esan behean agertzen diren baieztapenak **EGIA** ala **GEZURRA** diren **X** bat jarritz:

	Egia	Gezurra
1.- Gurasoek ni jaio nintzenean erosi zuten garbigailua		
2.- Garbigailua ez dabilen bitartean bakea egoten da gure etxean		
3.- Martxan hasi ondoren zarata itzela ateratzen du garbigailuak		
4.- Garbiketa bukatzean, gurasoen arteko liskarra ere bukatzen da		
5.- Garbigailua martxan jarri aurretik ere eztabaidatzen dute gurasoek		
6.- Martxan hasten denetik garbiketa bukatu arte irauten dute gurasoen eztabaidek		
7.- Dirua aurreztu arte garbigailu zaharrarekin segituko dute gurasoek		
8.- Dirua aurreztu bezain laster, zaharra bota eta beste garbigailu bat ekarriko dute		



Irakur ezazu testua eta aukera ezazu erantzun egokia .

OPORRETAKO PLAN BEREZIA PROPOSATU DUTE LETONIAN: PRESO EGOTEA KARTZELA BATEAN

Karostasko kartzelan 69 ziega (*celda*) estu eta ilun daude, eta turistek betetzen dituzte zaindarien jartzen dizkieten zigorrak.

Letonian, orain dela gutxi Europako Batasunean sartu den herrialdean, sobietarren garaiko kartzela batean bizi izan diren aukera ematen diete turistei. “Izugarrria izango da” esan du Liga Engelmanek, Liepaja hirian dagoen Karostas kartzelako gidariak.

Horrela, turistek oso bizitza gogorra izango dute kartzela barruan: “preso berriek” zaindarien agindua betetzen ez badute, ziegara sartuko dituzte, erabat isolatuta utziko dituzte edo komunak garbitu beharko dituzte.

Oporraldia modu horretan pasa nahi dutenek aurretik dokumentu bat sinatu behar dute, zaindarien zigor guztiak onartzen dituztela esateko.

Karostas kartzela bota egin behar zuten, baina 90ko hamarkadaren hasieran osorik edukitzea lortu zuten Liepajako biztanleek.

1.-

- a.- Letoniako presoek oporretarako plan berezia proposatu dute.
- b.- Karostasko kartzelako zaindarien ilun eta estu daude.
- c.- Karostasko kartzelako ziega ilunetan turistek zaindarien zigorrak betetzen dituzte.

2.-

- a.- Letoniako kartzela sobietarren garaian egin zuten.
- b.- Letoniako kartzelan sobietarren garaia ezagutzeko aukera ematen diete turistei.
- c.- Letoniako kartzela izugarria dela esan du Liga Engelmanek.

3.-

- a.- Presoen zaindarien komunak garbituko dituzte.
- b.- Presoek zaindarien agindua betetzen dute turistek bizitza gogorra delako.
- c.- Turistek zaindarien agindua betetzen ez badute, neurriak hartuko dituzte.

4.-

- a.- Dokumentua sinatu aurretik, zaindarien oporrak pasatu nahi dituzte.
- b.- Zaindarien zigor guztiak dokumentu batean agertzen dira eta sinatu behar da.
- c.- Oporrak kartzelan pasatu baino lehen dokumentu bat sinatuko dute.

5.-

- a.- Oporraldia modu horretan pasatzea modan dago.
- b.- Kartzela ez botatzea lortu zuten Liepajako biztanleek.
- c.- Liepajako biztanleek zigor guztiak onartzen dituztela esan dute.



Entzunaren ulermena**1. ariketa**

Hasi baino lehen, 5 minutu dituzu galderak irakurtzeko:

PITOI SUGEA ETXEKO KOMUN ZULOAN

Euskadi irratia

Esan ezazu beheko esaldiak **EGIA** ala **GEZURRA** diren **X** bat jarritz:
Bi aldiz entzungo dugu.

		Egia	Gezurra
1.	Galiziako herri batean gertatu zen istorioa		
2.	Bulego batean emakume batek aurkitu zuen sugea.		
3.	Emakumea ikaratuta gelditu zen.		
4.	Zigarroa erretzera joan zenean aurkitu zuen emakumeak sugea.		
5.	Hasieran, makila zela pentsatu zuen.		
6.	Sugeak metro bat baino gutxiago zuen.		
7.	Emakumea saiatu zen sugea harrapatzen, baina sugeak hozka egin nahi izan zion (dio) eta atzera egin zuen.		
8.	Sugea polizia-etxera eramán zuten sugeak harrapatzeko poltsa berezi batean.		
9.	Sugea Animalien Elkarte bati eman zioten (diote).		
10.	Badirudi 3. solairuko bizilagun batek kaiola batean suge bat zuela.		



Entzunaren ulermena**2. ariketa**

Hasi baino lehen, 5 minutu dituzu galderak irakurtzeko:

Iñaki Lasa txakur hezitzailea da . Euskal Herria Irratiko saio batean egin dioten elkarrizketa entzungo dugu orain. Hasi baino lehen hiru minutu izango dituzu galderak irakurtzeko. Bi aldiz entzungo dugu, eta gainera hiztegi txiki bat duzu , hobeki ulertzeko:

Zakurra : txakurra.	Zakur hezitzailea : adiestrador de perros.
Saio : programa	Jabea : dueño

Aukeratu erantzun zuzena:

1.- Saio hau...

- a.- egunero egiten dute
- b.- astero egiten dute
- c.- aste batean bai eta hurrengoan ez dute egiten

2.- saio hau...

- a.- lehenengo saioa da
- b.- ez da lehenengo saioa
- c.- bigarren saioa da

3.- Gaurko saioa...

- a.- berezia da
- b.- sarrera saioa da
- c.- motzagoa izanen da

4.- Gaurko saioan...

- a.- zakurren agresibitateari buruz hitz egingo dute
- b.- jabeen agresibitateari buruz hitz egingo dute
- c.- eskolako ume bati gertatutako istorioari buruz hitz egingo dute

5.- Floridan...

- a.- zakur bati istorio bitxi bat gertatu zitzaion
- b.- zakur batek hozka egin zion jabeari
- c.- adiestratzeko teknikak Europatik kopiatu dituzte.

6.- Zakurraren jabeak...

- a.- 25 urte baino gutxiago ditu
- b.- 25 urte baino gehiago ditu
- c.- zakurrak adina urte ditu

7.- Zakurrak...

- a.- kasu handia egiten zion jabeari
- b.- ez zion kasurik egiten jabeari
- c.- hankan egiten zion pixa jendeari

8.- Isuna...

- a.- isuna jabeari jarri zioten, txakurra gaizki adiestratzeagatik.
- b.- isuna jabeari jarri zioten, txakurra gaizki tratatzeagatik.
- c.- isuna txakurrari jarri zioten, baina jabeak ordaindu behar zuen.

9.- Isuna...

- a.- Isuna ordaintzeko dirua bazuen neskak.
- b.- isuna ordaintzeko dirua eskatu zuen neskak.
- c.- isuna ordaintzeko dirurik ez zuen neskak.

10.- Berri hau...

- a.- oso berri arrunta da Estatu Batuetan
- b.- European arruntagoa da Estatu Batuetan baino.
- c.- oso bitxia da eta gutxitan gertatzen da.



Idazmena


Hirurogei-laurogei hitz inguruko idazlana egin behar duzu. Bi aukera dituzu, eta bat bakarrik egin behar duzu:

Aukera ezazu hauetako bat:

1. aukera

Erantzun ohar honi (80/100 hitz inguru)

Kaixo laguna, atzo
arratsaldean zure etxera
joan nintzen bisita egitera
, baina ez zeunden. Nora
joan zinen?
Gaur arratsaldean etxean
egongo zara?

Ainara 

2.aukera

Idatzi iragarki bat: (80/100 hitz)

Iruñerrira etorri berria zara unibertsitatean ikastera. Pisu handi bat alokatu duzu eta etxea konpartitu nahi duzu. Euskaltegiko aldizkarian iragarki bat idatziko duzu pisukidea(k) bilatzeko . Deskriba ezazu non dagoen etxea, nolakoa den gela, prezioa, noiz arte eta nolako jendea nahi duzun....

Idatz ezazu hurrengo orrialdean



A2 mailako proba idatzia. ZUBIARTE EUSKALTEGIA

Idazlana: